

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 17/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 7ko 13/2020 eta 14/2020 foru dekretuen aldaketari

Nekazari gazteek nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko eta enpresak sortzeko laguntzen azpian dagoen interes publikoa kontuan hartuta, Foru Gobernu Kontseiluak apirilaren 7an dirulaguntza horien deialdia onetsi zuen, 13/2020 eta 14/2020 foru dekretuen bidez, hurrenez hurren. Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako administrazio epeen etetea kontuan hartuta, eskaerak aurkezteko epea etenda geratu zen alarma egoera kendu arte.

Bestalde, maiatzaren 22an, 537/2020 Errege Dekretua onetsi zen; horren bidez, alarma egoera luzatzeaz gain, erabaki zen ekainaren 1etik etenda dauden administrazio epeak berriro kontatzen hasteari ekitea, eta 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarri hura indargabetu zen.

Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuta 13/2020 eta 14/2020 foru dekretuek zuzenean lotzen zutela eskabideak aurkezteko epeen etetea alarma egoera kentzearekin, eta Gobernu zentralak berriz luzatu duela egoera hori, segurtasun juridikoko arrazoiengatik, egokitzat jotzen da lotura hori berariaz ezabatzea.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nekazaritza ustiatzietan inbertsioak egiteko laguntzak arautzen dituen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren aldaketa onesten duen apirilaren 7ko 13/2020 Foru Dekretuaren bosgarren artikulua aldatzea, baita 2020rako deialdia ere, honela idatzita geratzen baita: "Bosgarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau".

Bigarrena. Kontseiluaren apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuaren aldaketa onesten duen apirilaren 7ko 14/2020 Foru Dekretuaren seigarren artikulua aldatzea, baita 2020rako deialdia ere, honela idatzita geratzen baita:

"Seigarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau".

Azken xedapena. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz, 2020ko maiatzaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE